

Valle de Trápaga-Trapagarango Udaleko udaltzaingoko kidegoko agente lanpostuak jabetzan betetzeko hautapen prozesuaren deialdiko oinarriak. (469/19 Dekretua). Oinarrien aldaketa.

469/19 DEKRETUA.- Horretarako ireki den espedientearen berri eman ondoren, ikusirik Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalan hutsik dauden agente lanpostuak, Administrazio Bereziko Eskalakoa, Zerbitzu Berezien Azpieskalakoa, 2017ko Udaltzaingoaren Enplegu Publikoaren Eskaintzari zegozkionak, eskaintza hori 2017ko azaroaren 13an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean hartutako erabakiz onartu zelarik eta 2017ko azaroaren 24an argitaratu 225 zenbakiko Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkarian.

2019ko abuztuaren 12ko 356/19 dekretuaren bidez ebatzi zen 2017 urteko Udaltzaingoaren Enplegu Publikoaren Eskaintzari zegozkion Udaltzaingoko oinarrizko eskalako zazpi (7) agente lanpostu hutsen deialdiaren oinarriak onartzea; lanpostu hori barne sustapenez eta lehiaketa-oposizioaren bidez betetzeko hautapen prozesuaren deialdia onartzea, eranskinean jasotako oinarrien arabera; ebazpen hau eta eranskinean jasotako oinarriak Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzeko agintzea eta deialdi honen iragarkia argitaratzea Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean, Estatuko Buletin Ofizialean, Iragarki Oholean eta udalaren webgunean.

2019ko abuztuaren 22ko 159 zk-ko BAO-n argitaratu ziren oinarriak, eta 2019ko abuztuaren 30eko 164 zk-ko EHAAn eta 2019ko irailaren 7ko 215 zk-ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren deialdi horretako iragarkiak.

2019ko irailaren 5eko 382/19 dekretuaren bidez aipatu oinarriak zuzentzea erabaki zen, kontuan hartuta, esaterako, derrigorrezko hizkuntza eskakizunak zituzten lanpostuak ez zirela zehazten, parte hartzeko zenbait baldintza (gehienezko adina, titulazioak) ez zeudela argi, akatsak zeudela meritu gisa alegaturiko hizkuntza eskakizunen baremoetan eta gaitegian ez zirela bereizten atal orokorra eta atal espezifikoak. Hori zela eta berriro argitaratu ziren oso osorik oinarriak BAO-n eta parte hartzeko eskabideak aurkezteko beste epe bat ireki zen, iragarki berriak argitaratuz EHAAn, BOE delakoan, Iragarki Oholean eta Udalaren webgunean. Aldaturiko oinarriak 2019ko irailaren 12an argitaratu ziren BAO-n (174 zk.)

2019ko irailaren 13an Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde arteko harremanetarako Sailburuordetzako Toki Administrazio eta Erregistro Administratiboekiko harremanetarako zuzendariaren txostena erregistratu zen (SE zk.: 6712), non zenbait kontu aipatzen baitzituen aipatu oinarriei buruz.

2019ko urriaren 1ean (IR zk: 2902) oinarrien zirriborro bat bidali zitzaion Eusko Jaurlaritzako aipatu Sailari, eskatutako zuzenketekin, hark ikuskatu zezan.

2019ko urriaren 30ean Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde arteko harremanetarako Sailburuordetzako Toki Administrazio eta Erregistro Administratiboekiko harremanetarako zuzendariaren beste txosten bat erregistratu zen (SE zk: 7949) non aipatu oinarriei buruzko beste iruzkin batzuk egiten baitzituen. Ohar horiek kontuan hartu ziren eta Oinarrien behin betiko erredakzioan sartu ziren, espedienteen jasota dagoen bezala.

Kontuan harturik ekainaren 27ko 7/2019 Legea, Euskadiko Poliziaren Legearen bosgarren aldatutako buruzkoa (2019ko uztailaren 19ko 172 zk-ko EHAAn argitaratua), baldintza berriak ezartzen duena.

Kontuan harturik 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen oinarriak arautzen duenak, bere 21.1º.g) artikuluan Alkateari ematen diola enplegu publikoaren eskaintza onartzeko eskumena, Udaltzarak onartutako aurrekontu eta plantillaren arabera, eta baita ere, langileak hautatzeko probetarako eta lanpostuak betetzeko lehiaketetarako oinarriak onartzeko eskumena.

Aplikatu daitekeen legeriak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 10. artikuluan aurreikusitako abokazio ahalmena erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

LEHENENGOA.- 2017 urteko Enplegu Publikoaren Eskaintzari zegokion Udaltzaingoko oinarritzko eskalako zazpi (7) agente lanpostu hutsen deialdiko oinarriak zuzentzea eta aldatzea, espedientean jasota dagoen behin betiko proposamenaren arabera (V5), hori guztia kontuan harturik Eusko Jaurlaritzaren txostenak, 2019ko irailaren 13an (SE zk.: 6712) eta 2019ko urriaren 1ean (SE zk.: 2902) udal honetako sarrera erregistroan sartu zirenak, eta Euskadiko Poliziaren Legearen bosgarren aldaketari buruzko ekainaren 27ko 7/2019 Legearen aurreikuspenak (2019ko uztailaren 19ko 172 zk-ko EHAAn argitaratua).

BIGARRENA.- Aldatutako oinarriak (V5), eranskinean jasotakoak, alegia, eta ebazpen hau oso osorik argitaratzeko agintzea Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta beste epe bat irekitzea parte hartzeko eskabideak aurkezteko.

HIRUGARRENA.- Deialdi honen iragarkia argitaratzea Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, iragarki ohelean eta Udalaren webgunean.

LAUGARRENA.- Ebazpen honen berri ematea egiten den hurrengo osoko bilkuran.

Valle de Trápaga-Trapagaranen, bi mila eta hemaretziko azaroaren hamazortzian.

ALKATEA
Xabier Cuéllar Cuadra

TRAPAGARANGO UDALEKO UDALZAINGOAREN KIDEGOKO LANPOSTUAK JABETZAN BETETZEKO HAUTAPEN-PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

Lehenengoa. — Deialdiaren xedea

Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako Agente lanpostuak betetzeko hautapen prozesurako deialdia egiten da. Lehiaketa-oposizio librearen bidezkoa izango da eta horrez gain, prestakuntza ikastaro bat eta praktikaldi bat egongo dira.

Lanaldia Udalak urtero ezartzen duena izango da, kontuan izanda, dena den, Udaltzaingoaren izaera eta berariazko beharrianak.

7 dira deialdi honetako lanpostuen kopurua, horien %25 emakumeentzat erreserbatuko delarik, Euskadiko Poliziaren Legearen 47.bis.4 artikulua araberako. Hauek dira lanpostuon xehetasunak:

Lanpostuok C1 azpitaldekoak dira, Administrazio Bereziko Eskalakoak, Zerbitzu Berezien Azpieskalakoak, Udaltzain klasekoak, Udaltzaingoaren kidegoko oinarrizko agente mailakoak eta hizkuntza-eskakizun hau esleitu zaie:

- 1 lanpostu: 2 HE eta 2002/12/31eko derrigortasun data
- 2 lanpostu: 2 HE eta 2013/08/31eko derrigortasun data
- 4 lanpostu: 2 HE eta derrigortasun datarik gabe

Bigarrena. — Eginkizunak

Udaltzaingoi buruzko indarreko legerian zehaztutako eginkizunak (Euskadiko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 27 artikulua eta Estatuko Indar eta Kidegoen martxoaren 13ko 1/1986 Lege Organikoa eta hura garatzen duen arautegia) hauek izango dira, nahiz eta Trapagarango Udalak aldatu ahal dituen, bere zerbitzuak antolatzeko duen eskumenaren barruan:

Hauek dira Trapagarango Udaltzaingoko agente lanpostuaren erantzukizun orokorrak:

- a) Herritarrei laguntzea eta haien eskaerei erantzutea.
- b) Era guztietako arau-hausteak prebenitzea eta zuzentzea bere karguaren jardunean.
- c) Zerbitzuetan izandako gorabeheren berri ematea hierarkiako nagusiei.
- d) Trafikoa eta garraioa zaintzea eta ordenari eustea, ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa eta herriko kaleetan ibilgailuak aparkatzea erregulatuz.
- e) Udal eraikinak zaintzea eta ateak ixtea.
- f) Alarmak konektatzea eta haien seinaleei jaramon egitea.
- g) Trafikoa erregulatzea ikastetxeetako sarrera-irteeretan.
- h) Zenbait elkarteri eraikin publikoetara sartzeko giltzak ematea eta kontrolatzea.
- i) Jakinarazpenak egitea, bere menpekotasun hierarkikoaren arabera eta beste administrazio batzuekin lankidetzan aritzea.
- j) Hiri-bideetan eta hiri arteko bideetan gertaturiko trafiko-istripuetan esku-hartzea, biktimei laguntzeko eta lehen ikerketak egiteko.
- k) Lekuko gisa joatea zigor-epaiketetara, deitzen dietenean.

- l) Suhiltzaile-zerbitzuekin eta Segurtasuneko beste indar eta kidego batzuekin lankidetzan aritzea.
- m) Arreta berezia ematea patruilatzen ari den artean, delinkuentzia edo beste edozein motatako arau-hausteren bat gerta litekeen lekuetara.
- n) Gorabehereri buruz edo bide publikoan antzeman dituen edozein akatsi buruz informatzea, baldin eta Ikusi edo hartarako deitu badute.
- o) Segurtasuna kontrolatzea futbol partidetan (batez ere, arbitroa zaintzea), eta herriko kultura, jai eta kirol ekitaldietan.
- p) Herritarren segurtasuna bermatzea ekitaldi publikoetan.
- q) Gobernu organoen erabakiak eta bere nagusien jarraibideak eta aginduak betetzen direla bermatzea bere eskumenen eremuan.
- r) Azoka eta salmenta ibiltaria kontrolatzea eta behatzea (astero).
- s) Obra baimenak kontrolatzea eta ikuskatzea.
- t) Trafiko eta udal ordenantzei buruzko arau-hausteen salaketak egitea eta aktak erredaktatzea.
- u) Bizikidetzatza txostenak egitea, ondoren, dagokion sailari ziurtagiria emateko.
- v) Bandoak eta oharrak jartzea.
- w) Txakurrak biltzeko enpresari deitzea eta kudeaketa ikuskatzea.
- x) Uneoro betetzea armak eta gainerako defentsarako materiala erabiltzeko ezarritako segurtasun arauak.
- Y) Beste edozein egikizun burutzea, bere mailari badagokio eta aldeztu aurretik nola egin ikasi badu.

Hirugarrena – Parte-hartzeko baldintzak.

1.– Hautapen-prozesuan parte hartu nahi dutenek, onartuak izateko, baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Aldeztu aurretik eskaera egitea.
- b) 18 urte edukitzea. Agente mailan sartzeko, 38 urte ez izatea, muga hori Euskadiko Poliziako kidegoetan egindako zerbitzuekin konpentsatu daitekeelarik.
- c) Espainiar nazionalitatea izatea.
- d) Gutxienezko altuerari dagokionean, gizonek 1,65 metro eduki beharko dute, eta emakumeak, 1,60 metro.
- e) Batxiler edo teknikari titulua edukitzea.
- f) Euskal Herriko Poliziaren Hautaketa eta Prestakuntza Araudia onetsi duen Dekretuaren bigarren aldaketari buruzko otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuan ezarritako medikuntzako bazterketa taulan agertzen den gaixotasunik ez edukitzea.
- g) Doluzko delituarengatik zigortuta egon ez izana (birgaitzearen onura aplikatu daiteke), herri administrazioaren zerbitzutik baztertuta ez izana, eta funtzio publikoa betetzeko gaitasuna kenduta ez izatea.

h) Euskadiko Poliziaren kidegoan sartzeko edozein hautaketa-prozesutik kanpo geratu ez izana, hutsegite larri edo oso larriren bat egin izanagatik, salbu eta kanporatzearen datatik aurrera zenbatzen hasita preskripzio-epaeren bestekoa denbora igaro denean.

i) Gidatzeko baimen hauek edukitzea:

– Deialdiko lanpostu guztientzat: B motako baimena, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.

Gorago aipaturiko baimenak indarrean eduki beharko ditu hautagaiak, eskatzen zaizkion unetik bertatik, eta ez du gidatzeko eskubidea etenda, erretiratuta edo kenduta edukiko arrazoi administratibo edo judizialak medio, ezta esleitutako puntu guztiak galduta.

i) Iraungitako hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak lortu nahi dituztenek, 2. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa eduki beharko dute, edo hautapen prozesu honetan zehar egiten den egiaztetze-probak gainditu. hautapen prozesu honetan hizkuntza eskakizunaren proba egiten den eguna finkatuko da baldintza hau betebeharreko egun gisa.

2.– Prozeduran parte hartu nahi dutenek aurreko atalean eskatutako baldintzak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, Hirugarren oinarriko 1. i ataletan ezarritako salbuespenarekin, eta Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako Agente mailarekin karrerako funtzionario izendatu arte eduki beharko dituzte, egiaztatu egin beharko badituzte ere prozeduraren barruan, dagokion fasean.

3.– Prozeduraren edozein unetan – prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia barne– udalak jakingo balu hautagaietako batek ez dituela betetzen deialdian parte hartzeko baldintza guztiak, kaleratu egingo luke pertsona hori hautapen-prozesutik, horrek esateko dituenak entzun eta gero.

Laugarrena. – Eskabideak aurkeztea

Aurkezpena eta epea.

Trapagarango Udaleko Erregistro orokorrean eta <http://www.trapagaran.net> webgunean eskura egongo den eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira eskabideak.

Hautapen-prozesuan onartua izateko eskabideak Udaleko Alkatezari zuzenduko zaizkio, baldintza hauek bete beharko dituztelarik baztertuak ez izateko:

a) Hautagaiak jasota utziko dute deialdiaren 3. Oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak eta bakoitza betetzen dituztela, betiere eskabideak aurkezteko epearen egunari dagokionean, e) atalean aipatzen direnak izan ezik, hautapen prozesuaren amaieran beteko baitira.

b) Hautagaiak eskabidean utziko dute jasota zein hizkuntzatan (euskara edo gaztelania) egin nahi duten oposizio faseko ariketak.

Eskabideak behar bezala beteta aurkeztuko dira Trapagarango Udaleko Erregistro Orokorrean, 20 egun balioduneko epearen barruan, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Halaber, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatutako Administrazio Publikoetako erregistroetan ere aurkeztu daitezke eskabideak, 39/2015 Legearen laugarren xedapen iragankorren ezarritakoa eragotzi gabe. Udaleko Alkateari zuzenduko zaizkio, dagokion funtzionarioak datatuta eta zigilatuta egon beharko direlarik eskabideak aurkezteko eperaren barruan. Antzeman litezkeen egitatezko errakuntzak edozein unetan zuzendu daitezke, ofizioz, edo interesdunak eskatuta.

Prozedura honetan parte hartzea borondatezkoa da eta horrek suposatzen du hautagai bakoitzak bere eskabidean emango duela berariazko eta zalantzarik gabeko baimena probak eta ariketak egiteko, proba horien emaitza onartuz baloraziorako faktore bat gehiago bezala, oinarri hauetan aurrikusitakoaren arabera.

Hautagaiak eskabidean jartzen duten informazio guztia fitxategi batean sartuko da, eta hautapen prozesuaren kudeaketarako baino ez da erabiliko, datuok beste administrazio batzuei eman dakizkielarik, horretarako berariazko baimena eman beharko dutelarik laukia markatuz 2. eranskinetako eskabidean. Fitxategi honen erabilera eta funtzionamendua doitu egingo da Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren aurreikuspenetara eta jabetza publikoko datu pertsonalen fitxategien eta Datuak Babesteko Euskal Agentziaren sorrerari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearenetara.

Hautapen prozesu honetako hautagaiak berariazko baimena ematen dute, aurkakorik adierazi ezean, bere datu pertsonalak oinarri honetan adierazitako moduan tratatzeko eta helbururako erabiltzeko.

Oinarri honetan agertzen diren proba fisikoak egitera aurkezteagatik besterik gabe, hautagaiak bere gain hartuko dute bere osotasun fisikoaren erantzukizun osoa, eta Udaltzaria eta Epaimahai Kalifikatzaileak ez dute edukiko ezelako erantzukizunik probak egiten diren artean gerta litekeen edozein lesiogatik.

Bosgarrena. – Hautagaiak onartzea.

- 1.– Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Alkatetzak onartutako eta baztertutako hautagaien behin behineko zerrenda onartuko du eta hogeita batgarren oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko da.
- 2.– Behin behineko zerrendan adieraziko da, baztertutako hautagaiei dagokienean, zein den bazterketaren zioa eta 10 egun balioduneko epea emango zaie erreklamazioak egiteko eta eskabidean antzeman diren akatsak zuzentzeko.
- 3.– Epearen barruan aurkeztutako erreklamazioak onetsi edo gaitzetsi egingo dira hautagai onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda behin betikotzat hartzen duen ebazpenean, zeina hogeita batgarren oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko baita.
- 4.– Aurreko zerrendetan, eta argitaratzen diren guztietan parte-hartzaileak NAN zenbakiaren bidez identifikatuko dira.

Seigarrena. – Hautapen sistema.

1.– Hautapen sistema lehiaketa-oposizioa izango da. Segidako oposizio eta lehiaketa prozedurak egingo dira parte-hartzaileen gaitasuna zehazteko eta haien lehentasun-hurrenkera ezartzeko.

2.– Lehiaketa-oposizioko puntuazio osoa bi faseetan lortutako emaitzen batura izango da, hari gehituko zaiolarik merituen ebaluaziotik ateratzen dutena, hots, euskara jakiteagatik, Administrazio Publikoan egindako zerbitzuengatik eta jasotako prestakuntzarengatik ateratzen duetena, eta hautagaien lehentasun-hurrenkera ezarriko du.

Zazpigarrena. – Epaimahai kalifikatzailea.

1.– Lehiaketa-oposizioko probak finkatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko eta parte-hartzaileen hautapena egiteko Epaimahai Kalifikatzaile bat eratuko da, Euskadiko Poliziaren uztailaren 17ko 4/1992 Legearen eta uztailaren 19ko 315/1994 dekretuaren arabera. Mahaiburu batek, lau mahai kidek eta idazkari batek osotuko dute aipatu epaimahaia.

IVAPek proposatuta izendatuko den pertsona bat egongo da Epaimahai Kalifikatzailean, deialdian eskatutako hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko diren proberarako.

Epaimahaia Kalifikatzailea osatzen duten pertsonen izendapena eta haien ordezkoea hogeita batgarren oinarrian aurreikusitako moduan emango da jakitera, Alkate-Presidenteak edo hark esku emandako organoak hautatu ondoren.

Otsailaren 28ko 4/2005 Legean ezarritakoaren arabera, epaimahaiaren osaketan gizon eta emakumeen ordezkapen orekatua egongo da.

2.– Epaimahai Kalifikatzailearen jarduna kide anitzeko organoen funtzionamendua erregulatzen duten arauetz bideratuko da.

Epaimahai Kalifikatzailea osatzen duten pertsonen sektore publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23 eta 24 artikuluetan agertzen diren abstentzio eta errekursazio zioak aplikatuko zaizkio. Epaimahaiko kide diren pertsonen zerbitzuagatik dagozkien kalteordainak jasoko dituzte, asistentzienak barne, horri buruzko indarreko arautegiaren arabera.

Halaber, probetan zaintza eta kontrol lanak egiten dituzten laguntzaileek ere dagozkien kalteordainak jasoko dituzte, horri buruzko indarreko arautegiaren arabera.

3.– Hautapen sistema osatzen duten proben garapena eta ebaluazioa Epaimahai Kalifikatzailearen ardura izango da, eta funtzionatzeko autonomia osoz jardungo du; prozeduraren objetibotasunaren erantzule izango da eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko du.

4.– Epaimahai Kalifikatzaileak aholkularien edo espezialisten laguntza izan dezakete, hautapen sistemako proba guztietan edo batzuetan, baina horien lana aholkuak ematera eta laguntza teknikoa eskaintzera mugatuko da, bere espezialitateen barruan.

5.– Epaimahai Kalifikatzaileak neurri egokiak hartuko ditu oposizio faseko ariketa idatziak, Epaimahaiaren aurrean irakurri behar ez direnean, hautagaien identitatea ezagutu gabe zuzentzeko.

6.– Epaimahai Kalifikatzaileak behar diren neurriak hartu ahal izango ditu hautapen sistema garatzeko oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztiari dagokionean, eta ebatzi ahal izango ditu sor litezkeen interpretazio eta aplikazio kontuak, eta bere eginkizunak burutzeari dagozkionak ere bai. Era berean, Epaimahai Kalifikatzaileak ebatzi ahal izango ditu arau hauek aplikatzeko zalantza guztiak, eta zer egin behar den aurreikusita ez dauden kasuetan.

7.– Epaimahai Kalifikatzaileak ezin izango du hautatu deitutako plazak baino hautagai kopuru handiagoa, muga hori gainditzen duten proposamen guztiak zuzenbide osoz deusez izango direlarik.

8.– Proba edo ariketen datak eta haien emaitzak jakitera ematen dituzten Epaimahai Kalifikatzailearen erabakiak hogeita batgarren oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko dira.

9.– Epaimahai Kalifikatzailearen jardueren edota argitalpenei jartzen zaien alegazioak edo hari zuzendutako edozein motatako idazkiak Trapagarango Udaleko Pertsonal Zerbitzura bidaliko dira: Lauaxeta plaza, 1 (48510) Valle de Trápaga-Trapagaran.

Zortzigarrena. – Oposizio fasea.

Ariketa hauek osatuko dute oposizio fasea:

Lehenengo ariketa. — Ezagutza teorikoen eta udal kale-izendegiaren proba.

Ariketa honetan bi proba daude, biak derrigorrezkoak eta baztertzaileak. Probak egun batean eta segidan egitea erabaki dezake epaimahaiak. Kasu horretan, A proba gainditzen ez duten hautagaiak baztertuta geratuko direnez, B proba ez zaie kalifikatuko.

Ariketa honetako proba-zerrenda:

A) Ezagutza teorikoen proba. Idatziz erantzun beharko zaio Epaimahaiak proposaturiko galdeketa bati, hark zehazten duen denboran. Test motakoa izango da, deialdiari erantsitako gaitegiari buruzko zenbait erantzunekin, bat baino ez delarik erantzun zuzena izango. Proba honi Otik 20 puntura emango zaizkio, gutxienez 10 puntu lortu beharko direlarik proba gainditzeko eta gaitasuna eskuratzeko. Hautapen sistema ongi gauzatze aldera, Epaimahaiak, proba honetan erakutsitako ezagutza-maila kontuan harturik, erabakiko du non ezarri aipatu proba gainditzeko gutxieneko puntuazioa eta jakitera emango du. Gaitegian agertzen den arautegia eskabideak aurkezteko azken egunean indarrean dagoena izango da.

B) Trapagarango kale-izendegia ezagutzeari buruzko proba. Idatziz erantzun beharko zaio Epaimahaiak proposaturiko galdeketa bati, hark zehazten duen denboran. Test motakoa izango da, hautatzeko zenbait erantzunekin, horietatik bat baino ez delarik zuzena izango. Trapagarani buruzko ezagutzak neurtuko dira eremu hauei dagozkienean: kale-izendegia, kale bakoitzean ibilgailuak duten zirkulazio-norabidea, edozein Administrazio Publikoren organismo ofizialen kokagunea, ekipamendu publikoena, hala nola, medikuntza-zentro edo instalazioena, ekipamendu sozio-asistentzialena, hezkuntzakoena, kulturakoena edo kiroltakoena, haiek ezagutzea interesgarritzat jotzen bada hobeto betetzeko udaltzainen eginkizuna udal eremuan. Proba honi Otik 20 puntura emango zaizkio. Hautapen sistema ongi gauzatze aldera,

Epaimahaiak, proba honetan erakutsitako ezagutza-maila kontuan harturik, erabakiko du non ezarri aipatu proba gainditzeko gutxieneko puntuazioa eta jakitera emango du.. Proba hau deialdiari erantsitako Gaitegian jasota dago, 37 gaian, hain zuzen ere.

Asmatutako erantzun guztiak ken erratutako erantzunen 1/3 izango da asmatutako erantzun kopuru garbia bi probetan. Zuririk utzi diren erantzunak ez dira zigortuko, hots, ez da deskontatuko asmatutako erantzunen kopurua.

Eragiketa hauek guztiak hautagaien identitatea ezagutu gabe egingo dira.

Probak egun batean eta segidan egitea erabaki dezake epaimahaiak. Baina, lehenengo ariketa gainditu eta hautapen prozesuan jarraitu ahal izateko ariketako bi probak gainditu behar direnez, A proba gainditu dutenei baino ez zaie kalifikatuko B proba.

Ez agertzetzat joko da Lehen Ariketa osatzen duten bi probetako edozeinetara ez aurkeztea edo berandu heltzea eta horrek hautapen prozesutik baztertzea ekarriko du.

Bigarren ariketa. —Proba fisikoak

Proba fisikoekin hasi baino lehen, hautagaien altuera neurtuko da, hirugarren oinarriaren 1.d) atala betetzen dela egiaztatzeko, une horretan bertan baztertuta geratuko direlarik, artikulua horretan ezarritakoa betetzen ez dutenak.

Ariketa hau derrigorrezkoa eta baztertzaileria izango da. Gutxienez gaitasun fisikoko 5 probetatik 4 gainditu beharko dira. Proba horien bidez, besteak beste, hautagaiaren indarra, bizkortasuna, malgutasuna, erresistentzia eta autokontrola neurtuko dira.

Ariketa hau bere osotasunean baloratuko da gaitzat edo ez gaitzat, automatikoki baztertuta geratuko direlarik ez gaitzat jotzen diren hautagaiak.

Bigarren Ariketa hau osatzen duten bost probetako edozeinetara ez aurkeztea edo berandu heltzea ez agertzetzat joko da, eta horrek suposatuko luke proba ez gainditzea, eta horren ondorioz, hautapen prozesutik kanpo geratzea.

Epaimahaiak probak egiteko tokia edo tokiak eta haien burutzeko hurrenkera zehatza erabakiko du, kontuan hartuta eguraldia eta hark askatasunez antzemandako beste inguruabar batzuk.

Ariketa honetako proba-zerrenda

1) Abdominalak:

Helburua: Alde lunbar-abdominaleko indarra eta erresistentzia ebaluatzea.

Deskribapena: Ahoz gora etzanda, izterrak elkartuta eta erdi tolestuta, eskuak garondoan gurutzatuta eta lagun batek oinei eusten diela.

Hautagai eseri egingo da eta gorputz-enborra ezkerretara biratuz eskuin ukondoarekin belaun ezkerre joko du. Hasierako posizioa itzuli.

Eserita eta, gorputz-enborra eskuineratz biratuz, ezker ukondoaz eskuin belauna ukituko du. Hasierako posiziora itzuli.

Burutzeko denbora minutu bat izango da eta zuzen egin diren errepikapenak zenbatuko dira.

Proba honetan gaitasuna lortzeko, emakumeak zein gizonek, 45 errepikapen egin beharko dituzte ongi.

2) Beso-flexioak:

Esku eta oinetan bermatuta, oinak perpendikularrean eta behatzak lurrean jarrita, eskuak markatzailearen zabaleran eta besoak, gorputz-enborra eta izterrak zabalduta, beso-flexioa egingo da bularrarekin markatzailea ukitu arte, ezin izango duelarik ukitu lurra gorputzaren beste edozein atalekin.

Besoak luzatzean ez da utziko gorputz-enborrarekin edo aldakarekin mugimendu konpentsatzailearik egitea. Aldakak zein gorputz-enborra lerroan jarrita egongo dira.

Gorago aipatutako irregulartasunik gabe egiten diren flexioak zenbatuko dira.

Ezin izango da atsedetik hartu behin ariketa hasiz gero eta ongi egiten diren flexioak zenbatuko dira.

Proba honetan gaitasuna lortzeko, ongi egin beharko dira 27 flexio, gizonen kasuan, eta 12 flexio emakumeen kasuan.

3) Malgutasun sakona:

Oholaren gainean, oinutsik eta oinak dagozkien lekuan jarrita, gorputz guztia makurtu besoak atzerantz eta izter tartera eramanez, ukitu eta sakatu, kontaktua galdu gabe eta tiraldirik gabe, bi eskuekin batera, erregletaren kurtsorea ahal den lekuraino herrestatuz oreka galdu gabe.

Gehienezko distantzia lortuta aparatuaren aurreko aldetik irtengo da oinez.

Ariketa hau bi aldiz egingo da markarik onena hartuko delarik kontuan.

Proba honetan gaitasuna lortzeko, emakumezkoek zein gizonezkoek 30 cm-ko distantzia korritu beharko dituzte.

4) 60 metroko abiadura-lasterketa:

Helburua: Hautagaiaren erresistentzia maila ebaluatzea, esfortzu labur eta trinkoetarako gaituko baitu.

Deskribapena: Hautagaiak 60 metroko distantzia egingo dute korrika lur lauan.

Irteera posizio altua, aurreko oinak irteera marra ukituko du. Ezin izango da iltzedun zapatilarik erabili.

Saiakera bat baino ez da egingo.

Proba honetan gaitasuna lortzeko, gehienez, denbora hauek egin beharko dira:

—Gizonen kasuan: 8 segundu eta 3 hamarren.

—Emakumeen kasuan: 10 segundu eta 1 hamarren

Ehunetak beherantz biribilduko dira, 1 ehunetik 50 ehuneneraino, biak barne. Eta gorantz, 51 ehunetik 99raino, biak barne.

5) 800 metroko abiadura-erresistentzia lasterketa:

Helburua: Hautagaiaren erresistentzia aerobikoaren maila ebaluatzea, esfortzu luzeak egiteko gaitasuna ematen duena, alegia.

Deskribapena: Hautagaia korrika, oinez edo bi erataria egingo ditu 800 metro, lur lauan.

Abiatze-posizioa zutik eta taldean izango da. Ezin izango da iltzedun zapatilarik erabili.

Saiakera bat baino ez da egingo.

Proba honetan gaitasuna lortzeko, gehienez, denbora hauek egin beharko dira:

- Gizonen kasuan: 2 minutu eta 58 segundu.
- Emakumeen kasuan: 3 minutu eta 34 segundu.

Hamarrenak beherantz biribilduko dira, 1 hamarretik 5 hamarrenera, biak barne. Eta gorantz, 6 hamarretik 9raino, biak barne.

Hirugarren ariketa. — Gaitasun edota pertsonalitate probak

Derrigorrezkoa eta kanporatzailea. Gaitasun psikologikoak (jarrerak edota gaitasunak) neurtzeko proba bat edo gehiago izango dira, lanpostua eskuratu nahi dutenen egokitasuna baloratzeko. Adimen eta gaitasunak neurtzeaz gain jarrerak edo pertsonalitatea ere neurtuko dira. Epaimahaiaren eskumena izango da erabakitzea proba bakoitzeko gutxienezko puntuazio bat lortu behar den ala ariketa bere osotasunean kanporatzailea izango den.

Profesionalek, lanpostuaren arabera, egokitzat jotzen dituzten tresna mota desberdinak erabili ahal izango dira (testak, elkarrizketak, talde-dinamikak, rol-probak, eta abar).

Epaimahaiak erabakiko du noiz egiten diren eta zenbat iraungo duten eta gehienez 20 puntu emango zaio, gutxienez 10 puntu beharko direlarik gainditzeko.

Proba honen helburua da jakitea hautagaietatik zeinak diren hobeki egokitzen direnak Udaltzaingoko Agente lanpostuaren eginkizun eta atzetara, kontuan hartuta Bigarren Oinarria eta hurbiltasuneko poliziaren ereduaren printzipio eta ezaugarri nagusiak, zeinen arabera garatu beharko den hautatzen diren pertsonen jardura, beste beste, hauek direlarik:

Poliziak komunitatearekiko duen konpromisoa eta erantzukizuna indartzea. Poliziaren ikusgarritasun eta irisgarritasuna. Herritarren beharrezko harmena.

Ingurura eta haren arazo zehatzetara moldatzea.

Ikuspegi proaktiboa eta prebentiboa eraginkortasunez erantzuteko aurre egin behar dien arazoaren konplexutasunari.

Talde lana eta eginkizunak antolaketa hierarkizatu batean betetzea. Gardentasuna eta kontuak ematea bere polizia lanari dagokionean.

Gune bakoitzeko segurtasunaren protagonismoa, bere zerbitzuaren berezko helburuak betetzeko egokiak iruditzen zaizkion iradokizunak adieraziz.

Horretarako, adimen orokorrarekin, pertsonalitatearekin eta gizarte abileziarekin zerikusia duten kontuak baloratu eta neurtuko dira.

- Emozioen oreka eta doitasuna.
- Arau etiko eta sozialen barneratze ona. Disziplina.
- Lanerako gaitasuna, ekimena eta proaktibitatea. Taldeko lana.
- Enpatizateko gaitasuna eta soziabilitatea.
- Modu onak eta tratu zuzena jendearekiko harremanetan.
- Motibazioa.
- Konprenitzeko gaitasuna.
- Perzepziorako eta arretarako gaitasunak.
- Abstraziorako eta sintonizaziorako gaitasuna.
- Hitz egiteko eta komunikatzeko gaitasunak.
- Egoera gatazkatsuen maneia, eraginkortasuna eta limurtzeko gaitasuna.

Langile espezializatuek taxutu eta egingo dute aipatu proba edo probak eta haiek izango dira hautagai bakoitzaren gutxi gorabeherako egokitze mailari buruzko txostena emango dutenak. Horretarako, Epaimahaiak aholkulariak sartu ditzake bere lanetan, hautapen prozesuko proba guztietan edo batzuetan, baina bere espezialitate teknikoen jardunera mugatuko dira, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 31.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta hitza izango dute baina ez botua.

Epaimahaiak, aipatu proba edo probak egin baino lehen, erabaki dezake hautagaiek curriculum vitae sinplifikatu bat egin dezatela proba horiek burutzeko laguntza-elementu gisa baliatzeko. Aipatu curriculum ez da puntuagarria izango.

Laugarren ariketa – Derrigortasun data gaingiduta duten lanpostuetarako aurkezten direnek 2. HE edo goragokoa eduki beharko dute, edo hautapen prozesuan zehar horretarako deituko diren egiaztatze-probak gaingitu. Baldintza hau bete behar den data hautapen prozesu honetan hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba egiten den eguna izango da.

Bederatzigarrena. – Oposizioko proben garapena.

1.– Probak ezin izango dira hasi, harik eta bi hilabete igaro arte deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik.

2.– Lehenengo probaren eguna, ordua eta tokia gutxienez zazpi egun baliodun lehenago iragarriko dira, hogeita batgarren oinarrian aurreikusitako moduan, alkatetzak onartu eta gero. Gainerako probak egingo diren egunen iragarkiak ere hogeita batgarren oinarrian aurreikusita dagoen moduan egingo dira, gutxienez, 72 orduko aurretiaz, Epaimahai Kalifikatzailearen erabakia tarteko.

3.– Epaimahai Kalifikatzaileak erabaki dezake oposizioa osatzen duten probak eta ariketa desberdinak Zortzigarren Oinarrian ezarritako hurrenkeran ez egitea, eta zenbait ariketa egun berean egitea. Kasu horretan, proba edota ariketa desberdinen emaitzen argitalpenak deialdiaren oinarrietan ezarritako hurrenkeran egingo dira. Proba edota ariketen emaitzen argitalpenari dagokionean, aurreko proba edota ariketa gainditu dutenen emaitza baino ez da argitaratuko, Zortzigarren oinarrian ezarritako hurrenkeran.

4.– Automatikoki baztertuta geratuko dira hautapen prozesutik derrigorrezko probak edota ariketak egiteko Epaimahai egindako deialdira agertzen ez direnak horretarako ezartzen den egunean, orduan eta lekuan, ezinbesteko arrazoiengatik bada ere bai. Arau bera aplikatuko zaie derrigorrezko edozein proba edota ariketetara horiek hasi eta gero heltzen direnei.

Derrigorrezko probaren batean ariketa bat baino gehiago balego, ez agertzetzat joko da horietako edozeinetara ez aurkeztea edo berandu agertzea.

Goian ezarritakoaren salbuespen gisa eta hautapen probetan tratua eta aukera-berdintasuna bermatzeko asmoz, Epaimahai Kalifikatzaileak probak egiteko datak edota lekuak egokitu ditzake, hala behar badute haurdun dauden emakumeak edo erditzen ari direnak edo erditze aurretiko eta atzetiko hurren aldian daudenak, beti ere inguruabar horiek Epaimahai Kalifikatzaileari jakinarazten bazaizkio proba edo ariketa egin baino lehen eta mediku-ziurtagiri baten bidez egiaztatzen badira.

5.– Nortasun agiria, pasaportearen edo gidateko baimena eramane beharko da proba eta ariketa desberdinetara, Epaimahai Kalifikatzaileak une oro eska baitezake.

6.– Proba baztertzailerik bakoitza amaitzean, Epaimahai Kalifikatzailearen erabakiz, hautapen-prozesuan parte hartzen dutenek lortutako emaitzak argitaratuko dira hogeita batgarren Oinarrian aurreikusitako moduan, berariaz adieraziz lortu duten puntuazioa. Proba edota ariketa desberdinen emaitzak bi hamarrenekin argitaratuko dira.

7.– Oposizioko probak Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialeko edozeinetan egin daitezke.

Hamargarrena. – Lehiaketa.

1.– Lehiaketa fasearen kalifikazioa oposizio fasea gainditu dutenei baino ez zaie aplikatuko.

2.– Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen edukitako merituak baino ez dira ebaluatu ahal izango, deialdiaren Hirugarren Oinarriaren lehen klausulako parte hartzeko betekizunen i) atalean ezarritako salbuespenarekin.

3.– Lehiaketa fasea ez da baztertzailerik izango eta bertan lortzen diren puntuazioak ezin izango dira kontuan hartu oposizioko faseko probak gainditzeko.

4.– Egindako zerbitzuak eskabidean alegatu beharko dira. Hautagai bakoitzaren arduraren izango da zerbitzu horiek egiaztatzea. Horretarako, Epaimahai Kalifikatzaileak, merituak alegatu dituen pertsona bakoitzaren kasuan, ziurtagiria eska dakioke dagokion Toki Administrazioari, Administrazio Publikoan Aldez aurretik egindako Zerbitzuen aintzatespenerako abenduaren 26ko 70/1978 Legearen I Eranskineko ereduaren. Eskabidean merituak alegatzeak suposatzen du Epaimahai Kalifikatzaileak aipatu ziurtagiriak eska dakizkiokeela dagokion Toki Administrazioari. Horretarako berriazko baimena emango da eskabide-inprimakiaren 2 eranskinean dagoen laukia markatuz.

5.– Inola ere ez dira baloratuko eskabidean behar bezala alegatu ez diren merituak.

Hamaikagarrena. – Lehiaketa fasea

1.– Esperientzia.

Administrazio publikoan Euskadiko polizia kidegoetan (Udaltzaingoa eta Ertzaintza) agente gisa egindako zerbitzuengatik: 0.35 puntu hilabete osoagatik, zatiki txikiagoak ez direlarik kontuan izango, eta gehienez 14 puntu emango zaizkiolarik.

2.– Prestakuntza.

Atal honetan gehienez lor daitekeen puntuazioa 13 puntukoa izango da.

— Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak emandako prestakuntza ikastaroak: Gehinez 7 puntu, era honetara banatuko direlarik:

. Prestakuntza ikastaro asistentzialak: 0,05 puntu orduko, zatiki txikiagoak ez direlarik zenbatuko, gehienez 3 punturaino.

. Laneko jardunean hobetzeko prestakuntza ikastaroak: GAI kalifikazioa daukan prestakuntza ikastaro bakoitzagatik, 1 puntu, gehienez 4 punturaino.

Ondoren zerrendatzen diren titulazioak edukitzeagatik (tituluak metatu gabe), gehienez 6 puntu:

— Diplomatura: 1 puntu.

— Unibertsitate lizentzia, gradu edo baliokidea: 2 puntu.

— Motoak gidatzeko A edota A2 baimena edukitzea: 1 puntu baimen bakoitzeko.

— Kondekorazio polizialen bat lortu izana, Kondekorazio polizialen apirilaren 29ko 5/1964 Legean jasotakoaren arabera, 0,5 puntu bakoitzagatik.

— IT Txartelak (Windows, oinarrizko Word, oinarrizko Internet) edukitzeagatik: 0,5 puntu bakoitzagatik.

Oposizio faseko behin betiko emaitzak argitaratu ondoren, 10 egun balioduneko epea irekiko da alegaturiko merituak aurkez ditzaten gainditu duten hautagaiek.

Ezin izango dira baloratu merituak aurkezteko epearen barruan alegatu ez diren merituak, ezta, epe horren barruan alegatuta ere, geroago justifikatu direnak. Hautapen prozesuan parte

hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenago eskuraturiko merituek baino ez dira baloratuko.

Hamabigarrena. Hizkuntza eskakizunen egiaztapena eta euskaraz jakitearen balorazioa

1.– Hizkuntza eskakizunak egiaztatzea:

Prozesuan parte hartzen dutenek hizkuntza eskakizuna daukatela egiaztatu dezakete agiri ofiziala aurkeztuz edo horretarako berariaz egiten diren proba edo proben bidez.

Iraungitako derrigortasun data duten lanpostuak eskuratu nahi dituzten pertsonak agiriaren bidez egiaztatu dezakete 2. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa dutela (Europako Kontseiluak onartutako Hezkuntzen Erreferentziako Europako Marko Bateratuko B-2 maila edo goragokoa), edo hautapen prozesuan egiaztatzeko egiten diren probak gaindituta.

1.1.1– Agiriak egiaztatzea.

Hautapen prozesu honetako hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba egiten den egunera arte egiaztatu daiteke agiriaren bidez eskakizun hori eduki izana.

Ez da beharrezkoa izango Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (RUTCE) jasota dauden datuak egiaztatzea. Prozesu honetan parte hartzeak suposatzen du Trapagarango Udalarik zalantzarik gabeko baimena ematen zaiola aipatu Erregistroan begiratzeko datu horiek, horretarako berariazko baimena eman beharko dutelarik laukia markatuz 2. eranskineko eskabidean.

Hezkuntzen Erreferentziako Europako Marko Bateratuko maila horien titulazio baliokideak azaroaren 9ko 297/2010 dekretuan jasota daude, hots, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dekretuan, eta euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan ere bai.

1.1.2– Berariazko probaren bidez egiaztatzea.

Eskaintako lanpostuei esleitutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko borondatezko proba edo probak egingo dira, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko B-2 mailako zailtasun mailakoak (2 Hizkuntza Eskakizuna).

IVAPek proposatutako pertsona bat izendatuko da deialdian eskatutako hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko diren probetako Epaimahai Kalifikatzaileko kide izateko.

Proba hori edo horiek egingo diren ordua eta eguna Epaimahai Kalifikatzailearen erabaki baten bidez argiratuko dira, Hogeita batgarren Oinarrian aurreikusitako moduan.

1.2.– Euskaraz jakitea meritu gisa baloratzea.

Euskara jakitea meritu gisa baloratuko zaie Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko titulazio baliokideak dituztenei. Epaimahai Kalifikatzaileak, oinarri honetan jasotakoaren arabera, dagozkien puntuak esleituko dizkie, proba gehiagorik egin gabe.

Oinarri honetako aurreko atalean aipatutako moduan egin daiteke egiaztapena.

Ondoren agertzen den baremoaren arabera baloratuko da lanposturako hautagaien euskara-maila, eta mailarik handienaren titulu baliokidea baino ez da baloratuko:

–1 HE: 4,35 puntu

– 2 HE: 7,40 puntu

– 3 HE: 10,44 puntu

– 4 HE: 13,05 puntu

2 HE derrigorrezko data gainditua esleituta duten lanpostuerako aurkezten diren hautagaien euskara maila ondoren aipatzen den baremoaren arabera baloratuko da:

– 3 HE: 10,44 puntu

–4 HE: 13,05 puntu

Hamahirugarrena- Lehiaketa-oposizioa gainditu duen pertsonen behin behineko eta behin betiko zerrenda.

1.– Lehiaketa-oposizioaren puntuazio osoa bi faseetan lortutako puntuazioen batura izango da, hari gehituko zaiolarik euskara jakiteagatiko merituen ebaluaziotik ateratzen dena, eta hautagaien lehentasun-hurrenkera ezarriko du.

2.- Berdinketa gertatzen bada hautapen prozeduren sailkapen-hurrenkera, Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusitako irizpideen arabera ebatziko dira, legean aurreikusitako kasuetan.

Berdinketak jarraitzen badu, oposizioko lehen proban puntuaziorik handiena lortu duenaren alde ebatziko da, eta bigarrenik, lehiaketa faseko esperientziaren atalean puntuaziorik handiena lortutakoaren alde. Hala eta guztiz ere, berdinketak jarraituko balu, zozketaren bidez ebatziko litzateke.

Hautapen prozesu honetan deialdiko lanpostu hutsen esleipena hautagaien azken zerrenda bakarra jarraiki egingo da, kontuan hartuta lortutako puntuazioaren hurrenkera eta berdinketa apurtzeko legeak ezarritako irizpenak. Ez denean lortzen Euskadiko Poliziaren Legeko 47.bis 4 artikuluan aipatutako portzentajea, kontuan hartuta aurreko paragrafoan esandakoa, lehentasuna emango zaie emakumeei gizonen aurretik, lortu nahi den helburua bete arte, beti ere kasu hauetan:

a) Hautapen sistemako oposizio faseko proba eta ariketak gaindituta, gaitasun berdina dutenean.

b) Lehentasun hori aplikatuz hautaturiko emakumezko hautagaietako batek ere ez duenean oposizioko faseetako puntuazioan, edo kasua bada, lehiaketakoan, hautapen sistema nolakoa, %15eko puntu aldea aurrea hartu dien gizonezko hautagaiekiko.

c) Beste hautagaiak ez dituenean legean aurreikusitako arrazoiak, sexuagatiko baztertzailak izan gabe, neurri hori ez aplikatzea justifikatzen dutenak, esaterako, enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboetako izatea.

Hautapen prozesuaren deialdian aipatzen diren kidego, eskala eta mailan ez dagoenean emakume funtzionarioen %33ko portzentajerik baino ez da aplikatuko aurreko atalean aipatzen den lehentasuna.

2.– Epaimahai Kalifikatzaileak onartutako pertsonen behin behineko zerrenda onartu eta argitaratuko du, kalifikazioen arabera, puntuazioaren hurrenkeran.

3.– 10 egun balioduneko epean, aurreko paragrafoan aipatutako behin behineko zerrenda argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, interesdunek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzakete haren aurka, zeinak behin betiko zerrenda onartu baino lehen ebatzi beharko diren.

4.– Epe hori amaituta, Epaimahaiak, Zazpigarren Oinarriaren zazpigarren atalean aurreikusitakoaren arabera, hogeita batgarren oinarrian ezarritakoaren arabera argitaratuko du eta Alkatetzari aurkeztuko dio ateratzen den behin betiko zerrenda, kalifikazioen arabera, puntuazioaren hurrenkeran.

5.– Hautagai guztiak egongo dira zerrenda bakar batean, puntuazioaren arabera ordenatuta.

6.– Lanpostuetarako eskatutako gutxieneko hizkuntza eskakizuna daukaten hautagaiei zerrenda bakarraren hurrenkeran deituko zaie.

Hamalagarrena. – Hautatutako pertsonen zerrenda.

Lanpostuetarako baldintzak betetzen direla egiaztatuta, Epaimahaiak hautatutako pertsonen zerrenda onartuko eta argitaratuko du, hogeita batgarren oinarrian aurreikusitakoaren arabera, eta Alkateari aurkeztuko dio hautapen prozesua gaingitu eta deialdian eskaintzen diren lanpostu kopuruan sar litezkeen hautagaiak osatuko luketen zerrenda hori.

Hamabosgarrena. — Agiriak aurkeztea

Proposatutako hautagaiek, 15 egun balioduneko epean, onartutako zerrenda argitaratzen denetik kontatzen hasita, Udaleko Erregistro orokorrean aurkeztu beharko dituzte hautapen prozesuan parte hartzeko deialdiaren oinarrietan eskatzen diren baldintzak edukitzea egiaztatzen duten agiriak:

1. Administrazio Publikoaren Zerbitzurako Langileen Bateriaezintasunen abenduaren 26ko 53/1984 legean aurreikusitako bateraezintasun kausaren batean ez egotearen aitorpena.

2. Mediku-ziurtagiria, Udalak erabakitzen duen zerbitzu-medikoek emana, non esango den hautagaiak ez daukala gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik bere lana normaltasunez egitea eragozten dionik, otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuaren eranskinean agertzen diren

Bazkerketen Baremoan ezarritakoaren arabera. Horretarako mediku-azterketa bat egingo zaie hautagaiari Hirugarren Oinarriaren e) atalean aurreikusitako baldintza betetzen dela egiaztatzeko eta behar den beste mediku-proba egingo zaie baieztatzeko bazterketa-koadrora egokitzen direla hautapen-prozesu guztian, bere osotasunean hartuta. Mediku-azterketa aurkaratuz gero, interesdunak onartu egiten du jarritako erreklamazioa aztertuko duten organoen esku uzteko bere bazterketaren ziotzat erabili diren mediku-txostenak, haren ohore-eskubideari kalte egiten badiote izan ezik.

Adierazitako epearen barruan eta ezinbestean izan ezik, proposaturiko hautagaiak ez balitu aurkeztuko bere agiriak edo ez balitu beteko eskatutako baldintzak, ezin izango da izendatua izan eta baliorik gabe geratuko dira egin dituen jarduketak guztiak, hautapen prozesuan parte hartzeko eskabidean faltsukeriatan aritzeagatik eduki lezakeen erantzunkizunaz gain.

Hamaseigarrena. – Praktiketako funtzionarioak izendatzea.

Deialdiko baldintzak behar bezala betetzen dituztela egiaztatu duten hautagaiak, praktiketako funtzionario izendatuko ditu hautapen-prozesu honetako udalbatzako eskudun organoak eta izendapen hori hogeita batgarren Oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko da.

Praktiketako funtzionario izendatu diren pertsonak egoera horretan egongo dira prestakuntza ikastaroa hasi eta karrerako funtzionario izendatu arte edo hautapen-prozesutik baztertu arte. Arrazoi justifikaturik gabe prestakuntza ikastaroa egiten ez duen hautagaiak, hari uko egiten diola ulertuko da, eta balio gabe geratuko dira bere jarduketak guztiak.

Prestakuntza ikastaroan, praktikaldian edo haiek amaitzen direnean mediku-probak egin dakizkieke hautagaiari hirugarren oinarriko e) baldintza betetzen duela egiaztatzeko. Hautagaietakoren batek medikuntzako baztertze-zioen bat edukiko balu, hautapen-prozesutik baztertuko litzateke eta deialdi honetan lortutako eskubide guztiak galduko litzuzke.

Hamazazpigarrena. – Prestakuntza ikastaroa eta praktikaldia.

Prestakuntza ikastaroa eta praktikaldia derrigorrezkoak eta baztertzailak izango dira biak ala biak. Eta gaindu ezean, hautagaia hautapen-prozesutik kanpo geratuko litzateke, eta Udaltzaingoaren Oinarriko Eskalako Agente mailan sartzeko deialdi honetan eduki litzakeen eskubide guztiak galduko litzuzke.

Prestakuntza ikastaroa, gehienez bederatzi hilabetekoa izango dena, edo indarreko arautegiaren arabera dagokion iraupenekoa, eta praktikaldia ezin izango dira batera egin eta bakoitzaren iraupena edo biera batera, ez da 30 hilabetekoa baino gehiagokoa izango, edo indarreko arautegiaren arabera dagokion iraupenekoa.

Prestakuntza ikastaroa ikasturte bat izango da, derrigorrezkoa eta baztertzaila, eta haren edukiak, ebaluatzeko eta gainditzeko moduak eta iraupena Ikasketa Planean eta arautegi aplikagarrian zehazten direnak izango dira.

Fase horietako edozein ez egitea edo ez gainditzeak hautagaia automatikoki hautapen-prozesutik kanpo geratzea suposatuko du eta hautapen-prozesuan jarraitzeko eskubide guztiak galtzea. Izendatzen den eskudun organoari dagokio Prestakuntza ikastaroak eta Praktikaldia

antolatzea eta garatzea eta haren osaketa, oposizio fasea gainditu duten hautagaien zerrendarekin batera argitaratuko da “Bizkaiko Aldizkari Ofizialean”.

Ikastaroaren ebaluazioa “Gai” edo “Ez gai” kalifikatuko da, prestakuntza ikastaroaren ikasketa planetan adierazitako helburuen lortze-mailaren arabera. “Ez gai”-tzat joko direlarik eta hautapen prozesutik baztertuta, Prestakuntza Ikastaroaren eta Praktikaldiaren antolaketaz eta garapenaz arduratu den organoak ezarritako moduan irakasgaiak edo arloak gainditzen ez dituzten pertsonak.

Praktikaldian ere “Gai” edo “Ez gai” kalifikazioa lortuko da, eta prestakuntza ikastaroa gainditu duten hautagaiak egingo dute. Gutxienez hamabi hilabete iraungo du, eta jardueraren arabera, zentro eta lekurik egokienetan egingo dira, hautagaien prestakuntza integrala lortzeko eta Udaltzaingoen polizia-zerbitzuen egitura eta funtzionamendua berariaz ezagutzeko.

Ebaluazioan kontuan izango da hautagaiak Udaltzaingoko agente mailako berezko eginkizunak betetzeko erakutsi duten gaitasuna, atazak burutzean erakutsi duten eraginkortasun profesionala, batez ere, zerbitzuarekiko jarrera, nagusiekiko harremana eta disziplina, kooperazioa eta elkarlana, errendimendua eta erantzukizuna, egoera ulertzeko sena eta oreka emozionala eta egokitzeko gaitasuna, argi eta garbi behatu daitezkeen eta zehaztasunez deskribatuta dauden portaera erreferenteekin erkatuz baloratuko direlarik.

Prestakuntza ikastaroa eta praktikaldia antolatzeko eta garatzeko arduraren duen organoak ezarriko ditu praktikaldia baloratzeko tresnak eta prozedura, eta hark ematen dituen kalifikazioak bai prestakuntza ikastaroan eta bai praktikaldian lotesleak izango dira Udaltzaingoko Presidentearentzat karrerako funtzionario izendapena egiteko orduan, hark berrikusiko badu ere, administrazio prozedura arautzen duen arautegian aurreikusitako moduan.

Hemazortzigarrena. Praktiketako funtzionarioen araubide juridikoa.

1.– Praktiketako funtzionarioek dagozkien Udaleko ordainsariak jasoko dituzte, kasu bakoitzean aplikatu daitezkeen arautegiaren arabera.

2.– Praktiketako funtzionarioek bete egin beharko dituzte praktikak egiten diren zentro eta lokaletako Barne Araubidearen Arautegian ezarritako diziplina-arautegiko arauak eta, osagarri gisa, egitatea ez denean irakaskuntzako diziplinako falta hutsa, Euskadiko Polizia kidegoen diziplina-araubidearen arauak bete beharko dituzte.

3.– Prestakuntza ikastaroa edo praktikaldia ez gainditzea edo ez gaitzat jotzea, edo arau-hauste larri edo oso larriagatik zehapen bat jasotzea berariazko zioak dira automatikoki baztertzeko hautapen prozesu honetatik eta Udaltzaingoko oinarritzko eskalako agente mailara sartzeko prozesu honek eman dizkion eskubide guztiak galtzeko, oinarri honen aurreko paragrafoan aipatzen diren arauen arabera. Halaber, aplikatu daitezkeen ebaluazio-irizpideen arabera, ikasketa Planean jasotako irakasgaien ebaluazio partzialetik ondorioztatzen bada ezinezkoa dela prestakuntza ikastaroa gainditzea, Prestakuntza ikastaroaren antolaketaz eta garapenaz arduratzen den organoak bazterketa proposatu dakioke praktiketako funtzionarioaren izendapena egin duen organoari, aldeztu aurretik praktiketako funtzionarioak esan beharrekoak entzunda.

4.– Ikasketa Planean aurreikusitako gehienezko denboran baino gehiago faltatzea prestakuntza ikastarora hautapen prozesutik automatikoki baztertzea susposatuko du, salbu eta ezinbesteko arrazoiren batengatik bada, Barne Araubidearen Arautegiaren arabera.

5.– Praktikaldira faltatzea, ezarritako epea baino denbora luzeagoan, hautapen prozesutik automatikoki baztertzea susposatuko du, ezinbesteko arrazoiren batengatik ez bada.

6.– Prestakuntza ikastaroen eta Praktikaldiaren antolaketa eta garapenaren organo arduradunak antzematen badu ezinbesteko arrazoi bat dagoela, praktiketako funtzionarioen izendapena egin duen organoari proposatu diezaioke eragindako pertsonak ikastaro osoa errepikatzea, egiten diren hurrengoetan, edo praktikaldia osorik edo partzialki errepikatzea, inguruabar oztopatzaileak desagertu eta gero, eta betiere hala eskatzen badu hautagaiak.

7.– Prestakuntza ikastaroaren edo praktikaldiaren kalifikazioak zintzilik geratuko dira bazterketarako edozein arrazoi agertzen bada, harik eta irekitzen den bazterketarako espedientea ebatzi arte.

8.– Prestakuntza ikastaroan edo praktikaldian hautapen prozesutik baztertuta geratzen diren pertsonak armak, agiriak eta eman zaizkien ekipameduko gauza guztiak itzuli beharko dituzte.

Hemeretzigarrena. – Hautapen-prozesuaren behin betiko sailkapena eta karrerako funtzionarioen izendapena.

1.– Hautapen prozesuko behin betiko sailkapen hurrenkera hautapen sisteman lortutako kalifikazioei prestakuntza-ikastarokoak eta praktikaldikoak batuz egingo da.

2.– Praktikaldia amaitu eta hurrengo bi hilabeteen barruan, udalbatzako organo eskudunak proposaturik, karrerako funtzionario izendatuko dira, oinarrien arabera, hautapen prozesua gainditu duten hautagaiak.

Udalerriko Udaltzaingoko oinarrizko eskalako agente gisa egingo da izendapena.

3.– Indarreko arautegian aurreikusitako moduan egingo da izendapena.

4. – Izendaturiko hautagaiak lanpostuaren jabetza hartu beharko dute hamar eguneko epean, izendapena argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Halaber, armak eramateko konpromiso-idazki bat aurkeztu beharko dute, eskatzailearen aitortpenekin. Hala egingo ez balute, ezinbestean izan ezik, haien jarduketa guztiak baliorik gabe geratuko liriteke eta karrerako funtzionario izateko eduki litzaketen eskubide guztiak galduko lituzkete.

Hogeigarrena. – Ebatzitzeke dauden zigor– eta administrazio-prozedurak.

1.– Hautapen prozesu honetan parte hartzen duten pertsonak zabalik badaukate, edo ondoren zabaltzen bazaie, zigor- edo administrazio-prozedura bat, dolozko delitu batengatikoa kondenarekin amaitu daitekeena, eta horren ondorioz administrazio publikoaren kidegoren bateko zerbitzutik aldenduak izan badaitezke edo funtzio publikoetan aritzeko desgaituak, hautapen prozesuan onartuak izateko, prozesuan jarraitzeko eta dagokion kategorian sartzeko baldintza izango da aipatu prozeduretan kondenarik ez egotea edo aipatu aldentzerik ez gertatzea.

2.– Aurreko oinarrian aipatutako kontuak edo interes berezikoak izan daitezkeen beste batzuk egiaztatzeko, Udalbatzak zinpeko adierazpena eska dakieke pertsona horiei, hautapen prozesuan dauden arte.

Aipatu adierazpenean datu faltsuak jartzea edo zenbait datu ez aipatzea, horrek garrantzia izanda hautapen-prozesua gainditzeko, Barne Araubidearen Arautegian aurreikusitako erantzukizunak ekarriko ditu.

Hogeita batgarrena. Argitalpenak

Aurkakorik xedatzen ez bada, argitalpenak Trapagarango Udaleko Iragarki Oholean egingo dira. Trapagarango Udaleko Iragarki Oholean egiten den argitalpenaren data determinatzailea izango da epeak zenbatzeko ondorioetarako.

Trapagarango Udaleko Iragarki Oholean egiten diren argitalpen guztiak Udalaren webgunean begiratu ahal izango dira.

Hogeita bigarrena. – Gorabeherak, aurkaratzeak.

Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak argitzeko eta behar diren erabakiak hartzeko, lehiaketa-oposizioa ondo eta egoki joan dadin, oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztiari dagokionean.

Deialdia, haren oinarriak eta haien ondoriozko zein Epaimahaiaren jarduketan ondoriozko administrazio-ekintza guztiak aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek, Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak eta Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa Arautzen duen Legeak ezartzen dituen kasuetan eta moduan.

I ERANSKINA

EZAGUTZA PROBEN GAITEGIA

Atal orokorra:

1 Gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa. Atariko titulua. I Titulua: Funtsezko eskubideak eta betebeharrak.

2 Gaia: 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskadiko Autonomia Estatutua. Atariko Titulua. I Titulua: Euskadiren eskumenak. II Titulua: Euskadiren botereei buruzkoa.

3 Gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen oinarrian Arautzen duena. I Titulua: Xedapen orokorrak. II Titulua: Udalerria.

4 Gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Prozedura Erkidea. II Titulua: Administrazio Publikoen jarduerari buruzkoa. I Kapituluak: Jarduteko arau orokorrak. 25. artikulua: Administrazioaren isiltasuna interesdunaren eskariz irekitako prozeduretan. 25. artikulua: Berariazko ebazpen eza ofizioz hasitako prozeduretan. III. titulua: Administrazio ekintzak. IV Titulua: Administrazio prozedura erkideari buruzko xedapenen gainean. V Titulua: Ekintzak bide administratiboan berrikustea.

5 Gaia: 40/2015 Legea, urriaren 1koa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoa. Xedapen orokorrak. Xehapen ahalmenaren printzipioak. Administrazio Publikoen Ondare Erantzukizuna.

6. Gaia: 4/2005 Legea, abenduaren 28koa, Gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzkoa. Atariko titulua.

7. Gaia: Giza Eskubideak: Giza Eskubideen alderdi orokorrak. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. Giza Eskubideak babesteko Europako sistema.

8. Gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzekoa. Datu pertsonalen babes: kontzeptuak eta definizioak. Datuak babesteko printzipioak.

Berariazko atala

9 Gaia: 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, Euskadiko Poliziarena. Atariko Titulua. I Titulua: segurtasuneko administrazioari buruzkoa. I kapituluak: organoak eta haien eskumenak. II Titulua: Euskadiko poliziari buruzkoa. Xedapen Orokorrak. Kode deontologikoa.

10 Gaia: 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, Euskadiko Poliziari buruzkoa. III. Titulua: Euskadiko Poliziaren funtzionarioen araubide estatutarioa. I. kapituluak: Funtzionario izaera hartzea eta galtzea. V. kapituluak: Eskubideak eta betebeharrak. VII. kapituluak: Disziplina araubidea. V. Titulua: Tokiko poliziak.

11 Gaia: 2/1986 Lege Organikoa, martxoaren 13koa, Segurtasun indarrak eta kidegoak. V. titulua: Toki Polizia buruzkoa.

12 Gaia: Zirkulazioko arautegi orokorra. Atariko titulua. Trafiko, motordun ibilgailuen zirkulazio eta bide-segurtasunari buruzko arauen aplikazio-eremua. I Titulua: Zirkulazioko jokabidearen arau orokorrak.

13 Gaia: Bide Segurtasuneko Legea: I. eranskina– Oinarrizko kontzeptuak, 1etik 9ra, 12tik 24ra eta 54tik 73ra.

14 Gaia: Bide Segurtasuneko Legea: Arau-haustek (V titulua, I kapitulua).

15 Gaia: Bide Segurtasuneko Legea: Zehapenak (V titulua, II kapitulua).

16 Gaia: Bide Segurtasuneko Legea: Erantzukizuna (V Titulua, III kapitulua).

17 Gaia: Bide Segurtasuneko Legea: Zehapen prozedura (V Titulua, IV kapitulua).

18 Gaia: Bide Segurtasuneko Legea: Zirkulazioko jokabide arauak (II titulua, I kapitulua).

19 Gaia: Bide Segurtasuneko Legea: Puntuak galtzea dakarten arau-hausteak. (II eranskina).

20 Gaia: Bide Segurtasuneko Legea: Gidatzeko baimenak (IV. Titulua, II. kapitulua)

21 Gaia: 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodea. Delituei buruzkoa (10 artikulutik 18ra).

22 Gaia: 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodea. Erantzunkizun kriminaletik salbuesten duten arrazoiak. (19 eta 20 artikulua).

23 Gaia: 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa. Zigor Kodea. Erantzunkizun kriminala arintzen duten inguruabarrak (21 artikulua).

24 Gaia: 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor-Kodea. Erantzunkizun kriminala areagotzen dituzten inguruabarrak. (21 artikulua).

25 Gaia: 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor-Kodea. Ahaidetasuneko Inguruabar Mistoa (23 artikulua).

26 Gaia: 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor-Kodea. Delituen erantzunkizun kriminala duten pertsonen buruz. (artículo 27 artikulutik 30era).

27 Gaia: 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzkoa. II. kapitulua: Agiriak eta identifikazio pertsonala. III. kapitulua: Herritarren segurtasuna mantentzeko eta berrezartzeko jarduketak.

28 Gaia: 1/2004 Lege Organikoa, azaroaren 28koa, genero indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa. Zigor-tutoretza. 62. artikulua: Babesteko agindua. Prozedura Kriminalaren Legea, 544 artikulua ter.: Babesteko agindua.

29 Gaia: Lehen sorospena: Lesioen balorazioa. Bihotz-biriketako bizkortzea. Odoljarioa. Erredurak. Hausturak. Konortea galtzea.

30 Gaia: Eusko Legebiltzarreko 1/2016 Legea, apirilaren 7koa, Adikzio eta Drogamenpekotasunen Arreta Integralari buruzkoa. (VII Titulua).

31 Gaia: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuak Prebenitzekoa: Objektua. Aplikazio eremua. Eskubideak eta betebeharrak.

32 Gaia: Eraikinak hustutzea: autobabeserako planen hastapenak. Gertakariari erantzutea. Gutxienezko portaerazko jarraibideak. Okupazio handiko eraikinak. Emergentzia plan.

33 Gaia: Babes zibila. Betebeharrak eta obligazioak. Larrialdietako jokabidea eta babes zibileko planak. Ekintza prebentiboak. Kontu horietako oinarrizko antolaketa, zuzendaritza eta koordinazioa. Euskadiko babes zibilerako plana.

34 Gaia: 17/2019 Dekretua, otsailaren 5eko, Ikuskizun Publikoak eta Josteta jardueren legearen garapenerako arautegia onartzen duena.

35 Gaia: Trapagarango gune publikoan kokaturiko terrazetako altzariak eta beladoreak jartzeko ordenantza. Xedapen orokorrak. Baldintza teknikoak. Instalazioaren Baldintza Partikularrak. Zehapen Araubidea.

36 Gaia: Animaliak edukitzeari eta babesteari buruzko ordenantza tipoa. Animaliak edukitzearen Araubide Juridikoa. Ikusapena eta kontrola. Zehapen Arautegia.

37 Gaia: Trapagarango kale-izendegia, eraikinen eta zerbitzuen kokagunea.

<https://trapaganturismo.net/conoce-trapagaran/>

38 Gaia: Trapagaran. Udalerria eta bere ingurua.

39 Gaia: Trapagarango Udaleko zerbitzuak eta telefono erabilgarriak.

<http://www.trapagaran.net/es-ES/Ayuntamiento/Departamentos/Paginas/default.aspx>

40 Gaia: Trapagarango Udaleko barne antolaketa. Trapagarango eraikinak eta udal zerbitzuak.

<http://www.trapagaran.net/es-ES/Ayuntamiento/Departamentos/Paginas/default.aspx>

() Kontuan hartu behar da aipatutako legeriak eduki litzakeen aldaketak.*

II ERANSKINA

ESKABIDEA

UDALTZAINGOAREN KIDEGOKO LANPOSTUAK JABETZAN BETETZEKO HAUTAPEN PROZESUAREN DEIALDIA ETA HURA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

Zein hizkuntzatan egin nahi dituzu probak?

Euskaraz

Gaztelaniaz

DATU PERTSONALAK

1. abizena	2. abizena	Izena
Helbidea	Posta kodea	Herria
Probintzia	NAN	Jaiotze-eguna
Harremanetarako telefonoa	Posta elektronikoa	
% 33 edo gehiagoko minusbalioatasuna badaukazu, esaiguzu azterketak egiteko egokitzapen bereziren bat beha duzun. .		

1. Euskera

Euskara maila egiaztatzeko agiria (baldin badaukazu)

1HE/PL 1 2HE/PL 2 3HE/PL 3 4HE/PL EGA Beste batzuk

Zein motatako lanposturako aukezken da:

Derrifortasun datadun lanpostuetara Derrigortasun datarik gabeko lanpostuetara

Lanpostu mota guztietara

Euskarako proba egin nahi dut Ez dut egin nahi euskarazko proba

2. Esperientzia

	Hilabete kopurua	Udala

3. Prestakuntza

TITULAZIO AKADEMIKOAK

Títulua	Zein ikastegik eta herritan eman den	Eskuratze-data

TITULAZIO EDO ZIURTAGIRI EZ AKADEMIKOAK (Baimenak, IT Txartela edo kondekorazioak)

Títulua	Zein ikastegik eta herritan eman den	Eskuratze-data

PRESTAKUNTZA OSAGARRIA (Ikastaroak)

Ikstaroak	Orduak

4. Eransten diren agiriak (hautazkoa, eskaera egiten den unean)

	Erantsi da?		Agiri-kopurua
	Bai	Ez	
<i>NANaren fotokopia</i>	Bai	Ez	
<i>Titulu akademikoen kopiak edo ziurtagiriak</i>	Bai	Ez	
<i>Egin den lanaren ziurtagiria</i>	Bai	Ez	
<i>Egiaztatutako hizkuntza eskakizunaren ziurtagiria</i>	Bai	Ez	
<i>Minusbaliatua izanez gero, minusbaliotasunaren ziurtagiria.</i>	Bai	Ez	
<i>Egindako ikastaroen ziurtagiria</i>	Bai	Ez	
<i>B Gidatzeko-baimena</i>	Bai	Ez	
<i>A2 Gidatzeko-baimena</i>	Bai	Ez	
<i>A Gidatzeko-baimena</i>	Bai	Ez	
<i>IT Txartelak</i>	Bai	Ez	
<i>Kondekorazioak</i>	Bai	Ez	

5. Baimena

Behean sinatzen duenak "Bai" markatuz beheko laukian, baimena ematen die prozesua kudeatzen duten Trapagarango Udalari eta Epaimahai Kalifikatzaileari, dagozkien Toki Administrazioei eskatzeko behar diren ziurtagiriak. Halaber, hautagaiak baimena ematen du bere eskabidean jarri duen informazio guztia fitxategi batean sartzeko, haren erabilera hautapen-prozesuaren eta lan-poltsaren kudeaketara mugatuko delarik eta eskatzen duten beste Administrazio batzuei eman ahal izango zaizkielarik.

Bai

6. Datuen babesari buruzko informazioa

Tratamenduaren arduraduna eta datuen babeserako kontaktu delegatua

Valle de Trápaga-Trapagarango Udala

Lauaxeta Enparantza, 1 (48510 Valle de Trapaga-Trapagaran)

Telefonoa: 94 492 04 11

Posta elektronikoa: ayuntamiento.trapagaran@bizkaia.org

IFK: P4809300I

Datuen Babeserako delegatua: dpo_dbo.trapagaran@bizkaia.org

Tratamenduaren helburuak eta gordetze-epeak:

Udaleko langileak hautatzea.

Datuak jarduera administratiboan tratatuko dira eta gorde egingo dira tratamendutik eratorritako balizko erantzunkizun juridikoen eta uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 LEGEaren arabera.

Tratamenduaren oinarri juridikoa

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legislatiboa, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena.

Uztailaren 6ko 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoarena.

Urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legislatiboa, Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena.

Hartzaileak

Eskumena duten beste Administrazio Publiko batzuei jakinarazi dakizkieke datu pertsonalak, esaterako, IVAPI, Udalei, Udal Talde Politikoei, Pertsonal batzordeari eta Enpresa Batzordeari.

Eskubideak baliatzea

Interesdunak eskubidea du bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko, kentzeko eta haien tratamendua mugatzeko edo aurkaratzeko, eta halaber, informazioa areagotzeko, toki erakundearen helbidera edo dpo_dbo.trapagaran@bizkaia.org helbide elektronikora idatziz.

Behean sinatzen duenak eskabide honetan aipatzen diren hauta-probetarako onartua izatea ESKATZEN DU eta AITORTZEN DU egiazkoak direla bertan jasotako datuak eta oinarrietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela.

Data / Fecha:

.....

Sinadura / Firma